

Sentitzen dut, baina...

Izaskun Ruiz Ibarra



*emskara
txanpan*

Sentitzen dut, baina...

Izaskun Ruiz Ibarra

Julene Azpeitia 29. ipuin lehiaketa

2016

2. saria

2016ko abenduan digitalizatutako ipuina.

© Izaskun Ruiz Ibarra (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

*Kolore zuria, ederra eta perfektua.
Purua da, ez du maleziarik baina horregatik ere ahula da.
Beste koloreak gainjartzen zaizkio, garbitasuna zikinduz, argia itzaliz.*

Argi eta soinu ikuskizuna hirian. Jaietako su artifizialak dirudite, zeru iluna argituz, soinuz betez gaua, baina ez gaude jaietan, ez dugu zer ospatu. Jendea ikuskizunari begira, baina ikuskizunetik aldenduz, ikaraz beteriko begiekin aztertuz. Gaueko lasaitasuna suntsitu da, suntsipenaren doinua entzuten da, etengabeko soinua. Zerutik datorren bonba batek lehertzean argitzen du lekua, argitu eta puskatu, zure etxea eta bizitza hondatu.

Infernu honetatik ihesi nahian nabil, horregatik nago itsasontzira igotzen. Etorkizun hobe baten bila nabil, horregatik gastatu dut gordetako diru ia guztia bidaian. Lana, etxea eta gurasoak galdu arren, zorionez oraindik emazte eta hiru seme-alabak ondoan ditut. Ingurura begiratu eta hondamendia besterik ez dut ikusten, hondakin eta hildako gorputzez estalitako lurra. Ingurura begiratu eta desesperazioa besterik ez dut ikusten, gosez eta beldurrez jositako gizartea.

Jainko jauna lagundu nire familiari etorkizun bat izaten. Jainko jauna, badakit lan asko duzula eta badirudi gutaz ahaztu zarela, baina egunero gogoratuko gara gu zutaz. *“Sentitzen dut, baina ezin dizut lagundu, jende asko dabil laguntza eske”* erantzun dit jainkoak.

“Alemania, aukeraz betetako lurraldea. Merkel da Europan agintzen duena, bertakoak zaintzen dituena; han lana, dirua, etxea eta janaria ez dira falta”. Hori da buruan dugun ideia, irрати eta telebistak erakutsi digutena.

Jaio zaren lekuak baldintzatuko dizu bizitza. Eta gure lurra, hainbeste maite dudan lurra, jasanezina bihurtu da, gure anaiek suntsitu dute lurra. Jainko berdina izan arren, desberdin jokatzeko dugu bizitzan, desberdin defenditzen ditugu ideiak. Jainko berdinari errezatu arren, ez gara denak berdinak.

Txalupak ez du segurtasun handirik ematen, ez dugu gidatuko gaituen inor, ez dakit nola sartu gaitzkeen hainbeste lagun bertan, baina hala ere, diru kopuru handi baten truke noski, ihes egiteko aukera dugu eta hori ez da gutxi. Bultzatu gaituzte itsaso zabalera eta bagoaz aurrera, ilunpetan, hotzez eta galduta, baina pozik.

Hiritik urrundu gara, ez dira bonbak entzuten jada, baina ez dugu isiltasunik. Hotzak eragindako dardarak eta eztulak dira orain airean, ikusi ez baina sentitu daiteke ezjakintasunaren beldurra. Familia lasaitzeko hitzen bila nabil, baina ez da hitzik ateratzen nire ahotik. Haien begiradak beldurtzen naute, haien beldurrak lasaitu nahiko nituzke, baina ez dakit nola egin.

Kostaldera hurbiltzen ari gara, ikusi dezakegu lurra eta jendea txaloka eta abesten hasi da, baina musika alaiaren erdian isiltasuna sumatu da, motorra gelditu egin da. Helmuga aurrean eta gu geldirik, itsasora bota eta igeri egiteko ordua da.

Ez da erraza olatuei aurre egitea, indar guztiekin igeri egiten ari naiz, nire haurren ondora joan nahian. Ura hotza dago, ingurua iluna, ezin dut gorputza sentitu ez nire familia aurkitu. Ez dut flotatzen lagunduko didan txalekorik, eta nire gorputza hondorantz doala konturatzen naiz, indarrak gabeko gorputza urez estalita dagoela. Argi bat ikusten dut.

“Esnatu, esnatu” entzuten dut urrutira, begiak irekitzen didaten hitzak. Ez nago urez inguratuta, bustita soilik, hondarretan etzanda. Arima zurizko pertsonak existitzen dira, eta beraiek izan dira uretatik ateratzen lagundu gaituztenak. *“Hildako batzuk egon dira”* entzun dut eta nire familiaz arduratzen hasi naiz, baina ezin dut gorputza mugitu, indarra ez da itzuli oraindik gorputzera.

Txaleko nahikorik ez guztiontzat. Itsasontzira igo aurretik lapur bati bi txaleko erosi nizkion, bi besterik ez nituen lortu, altxor garesti eta eskasa. Bi seme-alabek soilik zuten jantzita. Bizitzen jarraitzeko aukera eman diote eta orain hemen ditut alboan. Emaztea malkoak lehortzen dabil zapi batekin, zorioneko eta zoritxarreko malkoak. Bi seme-alaba ditut alboan, baina hirugarrenaren gorputza dugu aurrean. Hondartzan buruz behera etzanda, oinutsik, bustita, hotz eta zuri. Olatuek esnatzeko eskatzen diote, gorputza mugituz, baina haren arima joan da beste lurralde batera, gorputza bertan gelditu da, izara zuri zikin batekin estalita. *“Sentitzen dugu, baina ezin izan dugu ezer egin”* erantzun didate boluntarioek.

Aurrera jarraitu beharra dago, hemen ez gaude salbu. Manta batekin babestu, ur eta janari pixka bat eman eta egunkari baterako argazki pare bat hartu ondoren, azkenean jakin dugu non gauden, Grezian azkenean. Baina ezin gure bidea jarraitu, kanpaleku batera joatera derrigortu gaituzte eta. Kanpalekua baino gehiago kartzela ematen du leku honek, ez digute ongi etorri alairik egin beltzez jantzitako poliziek. Zortea izan dugu eta denda txiki batean geratuko da familia, manta bat guztiontzat. Jendez gainezka dago, urduri eta gaixorik dauden pertsoez beteta. Eztul hotsa eta negar malkoak berriz ondoan, poztasunaren arrastorik ere ez alboan.

Hotza, gosea, ezjakintasuna eta lokatza. Baldintzak ez dira onak hemen gelditzeko. Oinetakoak itsasoan gelditu dira eta ez dut nola babestu oinak, behatz lodia more jarri zait azkenean. *“Sentitzen dut, baina moztu beharra dugu”* esan dit zuriz jantzitako medikuak, eta anestesiarik gabe, joan da behatza.

Janari nahikorik ez guztiontzat, edateko ur gutxiegi denontzat, umeak gose dira eta euriak ez du egoera laguntzen. Hezurak bustita, buztinezko oinetakoekin kanpalekutik noraezean, zer egin ez dakigula, nora joan ez dugula igarotzen dira orduak, egunak eta gau luzeak. Horrela daramagu astebete jada eta ez dut egoera aldatuko den esperantzarik, okerrera joango den ziurtasuna baizik.

—Bagoaz... ez dakit nora, baina bagoaz —adierazi diot familiari—. Hemen gelditzen bagara hilko gara, etorkizuna eta itxaropenari ihes egiten utziz. Gure etorkizuna guk idatziko dugu.

—Ados —hitz bakarrarekin erantzun dit emazteak. Badakit ni bezala pentsatzen duela. *“Egoera jasanezin batetik beste batetara etorri gara eta ez da gure seme-alabentzako lekurik egokiena. Galdu dugu jada bat bidean, ez dugu gehiago galduko bertan”* esaten dit haren begiradak.

Ez da zaila izan bertatik ihes egitea, kanpalekua inguratzen duen alanbrezko hesi azpitik joatea. Buztinezko lurrian erraz egiten da zuloa. Poliziek ez harrapatzea zailagoa izan da, baina gauz denok gara itsuak, eta ikusi gaituzten beste errefuxiatuak izan dira mutuak.

Mazedonia alderantz goaz, beste askoren artean, lurra zapalduz aurrera. Itsasoa oroitzapen txarrez beteta dago eta trenbidea hartu dugu bidaiaren gida moduan. Hemen ere jendez beteta, denok helmuga berdinarekin buruan.

Bide luze eta gogorra. Etsitako pertsoez josita dago bide ertza. Guraso gabeko umeak dira orain jaioberrien ama berriak. Aurkari dugu natura eta aurkari lagunak, lapur berriak, desesperazioak bultzatuta beltz bihurtu diren errefuxiatu zuriak.

Iritsi gara itxita dagoen mugara, Indomeni kanpalekura. Baina argi utzi digute mugaren zaindariak, indarkeriaz eta gorrotoz, Europak ez gaituela maite eta ez garela ongi etorriak. *“Sentitzen dugu, baina muga itxita dago”* erantzun digute poliziek. Berriz ere geldirik, ez aurrera ez atzera, zer egin ez dakigula. Itxaropena txikitzen doa, etorkizuna ilunduz, jainkoaren keinuren baten zain bertan igaroko ditugu egunak. Egun luzeak. Beltzak.

Jainkoak ez dit hitz egiten, albiste bat nahi duten kazetariak soilik egiten digute kasu, bi galdera eta zenbait argazkien ondoren, bizkarra ematen diguten horiek. Galderak erantzun eta argazkiak ateratzen utzi arren, laguntza eskatzean beti erantzun berdina: *“Sentitzen dut, baina ezin dut ezer egin”*. Bizi dugun egoera irudi eta hitzez erakutsi munduari, eskua ezkutatu aurrean duzunari.

Indarrak ere ihesi doaz, ahulduta ditugu gorputzak eta nahastuta buruak. Harresia ukituz gero: azala more, jipoiez beteta; begiak gorri, uxatzeko botatzen dituzten gasek eraginda. Nahiz eta ez izan ez janaririk, ez lo egiteko lekurik, inolako informaziorik ez edukitzea da okerrena. *"Muga laster irekiko dute"* diote batzuek, *"Ez gara inoiz irtengo hemendik"* diote beste batzuek.

Zulo bat, zulo txiki bat izan da berriz gure irtenbidea. Indomeni kanpalekutik bost kilometrora harresian zulo bat dagoela entzun dugu. Gure aukera bakarra egia ote den jakitea da eta horretara goaz. Guk bezala hainbat lagunek itsu-itsuan zeharkatu ditugu erreka zakarrak eta zelai bukaezinak, amestutako zulora iritsi arte.

Badira bidean oztopo egitendigutenak ere: poliziak eta kazetariak. Oraingoan gu izan gara garaile, kopuruan garaile. Lau poliziak ezin dute ehun errefuxiatuen aurka egin eta bidean aurrera korrika joan gara ihesi. Baina badira zenbait kazetari ilun polizien lagun, errefuxiatuen aurkari, argazki on bat lortzeko edozer da baliagarri.

Hanka bat jarri da nire bidean eta lurrera erori naiz. Semea eskutatik askatu eta galdu egin da hainbeste jenderen artean. Ez dut topatzen, ezinezkoa egiten zait aurkitzea, jende asko, kaos gehiegi. Inork ez du nire semea ikusi, inork ez du nire semea entzun, badirudi ez dela inoiz existitu.

Bakoitzaren biziraupena da helburua, garrantzitsua den gauza bakarra, ondoan duzuna bihurtuz ikusezina, mamua. *"Poliziak hainbat ume eta zahar harrapatu ditu, nora eramango dituzten argi utzi gabe"* albiste tamalgarria eman dit kazetari batek.

Semea ez da azaldu baina bai zuloa. Harresia apurtuta dago eta arrastaka lortu dugu, gure saria, Mazedonian gara azkenean. Beste pauso bat gure bidean baina beste kide bat atzean.

Pausoka-pausoka bagoaz Europan gora, gure bizitza berria harrapatzera. Hankak odolez, behatz bat gutxiago oinetan, jantziak zulatuta, zikinak eta bustita, azala zauriz baina bihotzak ilusioz beteta. Oraindik bidea oso luzea da eta poltsikoa erdi hutsa

dugu, sabelak hustuta eta gorputza nekatuta. Gelditzen zaigun diru apurra zertan gastatu ondo pentsatu behar dugu.

—Austrian 500 euroren truke —kamioi baten gidariaren hitzak ilusioz bete gaitu.

Bide luzea dugu aurretik baina indarririk gabe gaude jada. Gure egoeran ez dut beste irtenbiderik ikusten. Gelditzen zaigun diru guztia eman diot gidariari eta kamioi izozkailuan ezkutatu gaitu. Leihorik gabeko zulo beltz batean, estuturik, beste hainbat pertsonarekin batera, zahar eta ume asko tartean, arnasa hartu ezinik... baina ez dut beste irtenbiderik ikusten.

Bidea bukaezina egiten ari zaigu eta arnasa hartzea gero eta neketsuagoa da. Emazte eta alaba ikusi ez baina sentitzen ditut. Jende askoren arnasa nola estutzen doan ere sumatu daiteke, eta askotan arnasa horien isiltasuna iristen da. Heriotzaren isiltasuna. Oxigeno apurragatik borrokan hasi dira batzuk, bizitza galdu aurretik egindako azken esfortzua, baina alferrikakoa izan da. Egoera okerrera joatea lortu duen azken ekintza.

Oraindik ez dakit gidariak zergatik hartu zuen erabaki hura. Errefuxiatuek eragindako balantzak beldurtu zuten? edo Austriako mugan polizien kontrola topatu zuelako? Auskalo zein izan ote zen kamioia autopistako ertz batean baztertzearren arrazoia. Baina kamioiaz gain gutaz ere ahaztu zen, eta errepide erdian geldirik eta atea itxita, ezin atera, gelditu ginen.

Kamioi barruko arnasak gutxitzen doaz, usain jasanezina dago airean, hildakoak nagusitzen hasi dira barruan eta kanpoko norbaiten laguntzaren zain, garrasi egiten eta ateari kolpeka igaro ditugu orduak. Laguntza eskatzeaz nekatu garenean, bat-batean, ireki da atea.

“Heriotzaren usaina zuen kamioia” da artikuluren izenburua, *“71 hildako aurkitu dituzte kamioi-izozkailu baten barruan”* albistea zabaldu da mundu guztian zehar. Europak bi negar malko eta minutu bateko isiltasuna egin ondoren, bilera egiteko ordua dela erabaki du azkenean. Baina Europak ez dio nire emazteari bizitza itzuliko.

Errefuxiatuek sortutako arazoak dira aztergai, ez errefuxiatuen arazoak. Hitzeko irtenbide eta asmo asko; ekintza gutxi, ordea. Interes politikoak sozialen gainetik beti, dirua pertsonen gainetik berriz.

Bizirik gelditu garenok autobus bat hartu eta Austriara iristea lortu dugu. Jan, edan eta aterpean lo egiten utzi digute. Jantzi berriak ere lortu ditugu. Indarrak berreskuratu eta esperantzak piztu. Jatorrak dira gurekin Austrian, baina leku hartan denbora askoan ezin dugula jarraitu aholkatu digute, aholkatu eta agindu. Esperantza zuria zikindu da, portaera ona ilusio hutsa izan da.

"Berlinera doazen zenbait tren jarri ditu gobernuek, Austriari errefuxiatu kopuruarekin laguntzeko asmotan" adierazi du albistegietako aurkezleak. Badiirudi Alemania errefuxiatuen arazoekin murgildu nahi duela, hala dirudi behintzat. Alemaniara joan behar dugun erabakia indartu da. *"Gutxi falta zaigu helmugara iristeko, ezin gara bide erdian gelditu"* adierazi diot alabari. Bagoaz tren geltokira. Orain ere jendez gainezka.

Poliziaz inguratuta dago tren geltokia eta kontrolatuta errefuxiatu kopurua. Sartzeko ilara oso luzea da eta itxaroten dugun bitartean denetariko ahotsak entzuten ditugun inguruan, aurka eta aldeko garrasiak. *"Itzuli zuen herrira!"* diote batzuek, gauzak botatzen dizkiguten bitartean. *"Bakea, babeseta eta poztasuna guztiontzat"* diote beste batzuek, loreak botatzen dizkiguten bitartean.

"Emakume eta haurrak lehenengo" agindu dute arduradunek. Alabari eskua askatu eta bakarrik joaten utzi edo bertan gelditu elkarrekin; duzunarekin konformatu edo nahi duzunagatik borrokatu, zer egin?

Erabakitzeko denborarik ere ez dut izan, alaba ondotik kendu eta sartu dute trenera. *"Alemanian egingo dugu topo"* garrasi egin diot, bera lasaitzeko asmotan. Espero dut nire hitzak bete ahal izatea. Jendez betetako trena jarri da martxan, Berlinera doa.

"100.000 haur errefuxiatu desagertuak Europara iritsi orduko" albistea irakur dezakegu egunkarietan, "batzuk beren familiarrekin daude, autoritateak jakin gabe, baina gehienak pertsonen trafikoko organizazioetan, sexualki edo esklabo moduan erabiliak".

Berlineko tren geltokian jarraitzen dut zain. Minutuak, orduak, egunak nire alabaren arrastoren baten zain. *"Sentitzen dugu baina ezin dugu ezer egin, milaka jende pasatzen da egunero hemendik"* langile eta polizien erantzuna, ume desagertuen argazkiz betetako horma adierazten didaten bitartean.

Zuria zirudiena beltz bihurtu da. Iritsi naiz helmugara, Alemaniara, bizitza berrira. Seme-alaba gabeko bizitza berrira. Gorrotoz beteriko aurpegiak besterik ez ditut aurkitzen, laguntza eskatzen dudan bakoitzean.

Heriotza dut lagun zaharra eta bakardadea lagun berria. Ez zait ezer geratzen, bizitzeko arrazoiak ere ez ditut gogoratzen. Ez dirurik, ez familiarik, ez indarririk, ez itxaropenik. Ez dakit zer egiten dudan nirea ez den lurralde batean, gorroto nauten herri batean, etorkizunik gabe aurrean. Banoa etxera, askatasuna lortzeko bide berri baten bila.

"Sentitzen dut, baina bukatu da bidea, galdu duzu zoriontsu izateko aukera" esaten du nire arimak, nire gorputza izara batez estaltzen duten bitartean. Gizarte krudel honi agur esan diot azkenean, etorkizun hobe baten bila noa zerura. Izara zuria odol gorritz margotua.